

Hitzatzea

Gazte-literaturaren mugak

MARIASUN LANDA



2012ko irailaren 20an eta 21ean, hainbat idazle eta kritikari bildu ziren Verines Etxean, Asturiaseko Pendules herrian, Salamancako Unibertsitateak eta Kultura Ministerioak urtero antolatzen dituzten topaketetan. Gaia: «FRONTERAS DE LA LITERATURA JUVENIL». Bertan izan zen Mariasun Landa, beste batzuen artean.

Behinlara ekarri dugu euskal idazleak han azaldu zuen hausnarketa.

Etiketa literarioaren bila dabilzan inurriak

Eskaini diguten gaiaren inguruan, aitortu behar dut, gazte-literaturaren kasuan, mugak garbiago ikusten ditudala sistema literarioko modalitate honek betetzen duen esparrua bera baino: adinari dagozkionak, literatura-lanen artekoak, testuen eta irudien artekoak, eskola-liburuen eta aisialdietakoak, eta gazte-literaturaren eta arte plastikoaren artekoak, batzaz beste. Eta, gustukoa ez badugu ere, literatura nagusiaren eta txikiaren artekoa, noski.

Muga gehiegi eremu, kontzeptu, errealtate lanbrotsu eta zehaztugabe barentzat. Askok salatu dute gazte-literatura asmakizun komertziala baino ez dela, derrigorrezko heziketa 16 urtera arte luzatzearen ondorio dela, alegia. Ez aipatzegatik zein kulturalak izan diren eta diren, berez, haurtzaro- eta gaztaro-kontzeptuak.



Nolabaiteko muga aipatzearren, Emili Teixidorrek egin ohi zuena ekarri nahi dut gogora. Duela 9 urte, hementxe bertan egin genuen topo, Verines etxe handi honetan, haur- eta gazte-literaturaren gaia zela eta. Tamalez, jadanik gurekin ez dagoenez, omenaldi xume bat egin nahiko nioke, bide batez. Teixidorrek irakurle gazteen artean sartzen zituen 12 urtetik gorakoak, irakurketa garden eta eragozpenik gabeetatik irakurle heldu izatera iristen zirenak; ez adinagatik soilik, testu literarioaren konplexutasuna onartzen zutelako baizik. Testua interpretatzeko egin daitezkeen irakurketak onartzen dituen irakurle. Esan beharrik ez dago, zentzu horretan, irakurle heldu edo zahar asko irakurle gazteak direla.

Bestalde, literaturak harreman triangeluarra sortzen du autorearen, irakurlearen eta testuaren artean. Orain nabarmena iruditzen bazaigu ere, ez dugu ahaztu behar nire adinekoek jaso genuen heziketa literarioan literaturaren historiari soilik begiratzen zitzaiola, autore handiei eta beren obrei. Geroago, irakasle nintzela, atentzio hori testuei eta haien azterketei zuzendu zitzaien. Eta, azken urte luze hauetan, berriz, literaturaren harreraren ikuspuntua bihurtu zaigu ikuspunturik garaikideenetako eta interesgarrienetako bat. Hau da, literatura irakurleak betetzen duen lekuaren arabera aztertzea, elkartrukerako eta topaketarako espazio sozial gisa. Gazte-literaturaren kasuan, Harreraren Teoria delakoak hartzaileak bihurtzen ditu aztergune: gazteak, alegia.

Baina bada garaia honakoa esateko: nik neuk ez daukat batere garbi no-rentzat ari naizen, idazten dudanean. Izan ere, nola hitz egin daiteke idazketa literarioaz prozesu bakarra balitz bezala, barne hartzen dituen hainbat eta hainbat fase, saio, euforia, beherakada, blokeo, zalantza, asmaketa edo aurkikuntza?

Hori guztia laburbildu beharko banu, ia modu sinplistan, bi lerro marraztuko nituzke: inspirazioarena eta transpirazioarena, lehenbailehen elkar ulertzeko.

Litekeena da, hasiera batean, niretzat bakarrik idaztea: dibertitzeagatik, desafioagatik, otu zaidanak gorpuzkera, ahotsa, koherentzia lor ditzan... Zerbait gozagarritzat hartzen dut nik, eta ez dut batere garbi izaten nire

hartaileak nortzuk izango diren. Beharbada, istorioa mamitu denean, alferrikako saio bat izan ez denean, fase sortaile eta gozagarria bukatu eta konturatzen garenean heldu dela zuzenketarako, berrikusketarako garaia, orduan bai, orduan hasten dira balizko irakurleak nire buruko eszenatokian agertzen. Dena aitortzeko, une hori bera da gonbidatu gabeko irakurleen bisitak izateko mementoa ere, gure baimen kontziente edo inkontzientearekin urrutitik datozkigunak. Bisitari horiek betebeharrak bakarrik dute: bururatu zaigun guztia zapuztea, zentsuratzea, barre egitea edo haserretzea idazten ari garenean inguruan. Nahiz eta arbuiagarriak izan, ez dugu aiantzi behar guk geuk gonbidatu ditugula eta, horregatik, norberak bidali behar dituela kanpora, maiz asko kosta egiten zaigun arren. Batez ere, maltzurki diotenak idatzi dugunak ez duela izango argitaratuko duen argitaletxerik.

Teresa Colomerrek, *Irakurle literarioaren formazioa* liburuan, *hitzarmen narratiboaren* kontzeptua aipatzen du, Batjñ-ek garaturikoa. Haren arabera, testu baten esanahia autorearen eta irakurlearen arteko eraikitze negoziatua litzateke, testua dela bitarteko. Hark gogorazten digu testu literario bat ez dela transmititzen autorearengandik irakurlearengana soilik, baizik eta eraiki egiten dela, interakzio-prozesu baten bidez. Esanahiaren mugak autorearen asmoen, irakurleen ezagutzaren eta testuaren ezaugarrien artean aurkitzen dira. Idazlearen trebetasuna etengabe mugatzen da irakurleak kontuan hartzeko, eta alderantziz, irakurleen balizko maila partekatu behar duelako. Irakurlearekiko konbergentziak huts egiten duen puntuak aurkitu behar ditu, eta konponbide baterako bideak eskaini.

Haur- eta gazte-literaturaren kasuan, adibidez:

—Informazio berriari testuinguru bat emanez, nolabaiteko laguntza baten bidez, erabilitako hitzaren definizioa, esate baterako.

—Testua zatikatuz, irakurlearentzako erabilerrazak izango diren unitateetan: paragrafoak, atalak...

—Hasieratik testuaren generoa argi eta garbi adieraziz, eta irakurleari jarraibide metadiskurtsiboak eskainiz, testua interpretatzeko.

Egia esan, orain arte, hemen bildu gaituen gaiarekin erabat lotuta ikusten ditudan bi kontzeptu inguratzen ibili naizela uste dut: irakurle inplizituaren kontzeptua eta gaitasun literarioaren garapenarena.





Lehenengoari buruz, esan behar da irakurle inplizitua autorearen buruan sortuz doan irakurle mota bat dela, zeinentzat autorea idazten ari baita, kontziente edo inkontzienteki, eta irakurle enpirikoekin bat etor daiteke edo ez, testua irakurriko duten pertsona errealekin, alegia.

Irakurtze-prozesuan, Harreraren Teorian aditu Iser-en hitzetan, hutsarteak nabari daitezke. Narratzaileak ezin dizkigu zehaztasun guztiak eman; maiz, egoera batzuk ezkutatu egiten dizkigu, edo era osatugabe edo zehaztugabea aipatzen ditu... Hutsune horiek guztiak testuaren berezko zatiak dira, irakurleak osatu beharko dituenak. Batzuetan, testua deskodetzeko ahalegin berezia egitera behartuta aurkituko da irakurlea. Umorearen, ironiaren kasuan, esate baterako.

Bigarrenari dagokionez, irakurle horien gaitasun literarioa kontutan hartu beharrekoa da. Hau da, zer ezagutza teoriko edo historiko dituzten, ez baitira derrigorrean testuetatik ateratzen, askotan sozialki ikasi beharrekoak direlako eta, hizkuntzaren kodeak ezagutzeaz gain, gizarte bateko sistema kulturalako kode artistiko eta ideologikoak ere ezagutzea eskatzen duelako.

Baina etenaldi bat egitera behartuta nago.

Hau ez dut neuk erabaki, beraiek baizik.

Aurreko hori guztia idazten ari nintzen bitartean, lerroen artean agertzen hasi diren inurri batzuek. Nire maletan sartzeko asmoarekin mehatxatzen naute,




Verinesera autoan nirekin etortzeko –mundu guztiak daki zein tematiak diren!–, eta are okerrago: teoriak baztertu eta haiei buruz hitz egiteko eskatzen didate.

Testu labur batzuen protagonistak dira, mikrorrelato batzuetakoak, gehienak argitaratu gabeak eta azken urte hauetan presarik gabe idatziak, nire buruaz barre egiteko eta baita besteen kontura ere. Labur esateko, denbora luzean gurekin bizi diren proiektu horietako bat.

Esaten nuen bezala, inurri horien kezka da nola sailkatuko dituzten, zein apaletan kokatu beharko duten, zein etiketa jarriko diedan edo, kezkarriagoa dena, argitaletxeren batek zein etiketa jarriko dien argitalpen literarioaren estatusa lortu eta gero: literatura-orokorra? Haur- literatura? Gazte-literatura? Umorezkoa? Fantasiakoa? Inurri horiek badakite inongo sailkapen edo etiketatan pentsatu barik idatzi nuela beraietaz, gaur egun asko direla, muga argirik ez izatearen ondorioak jasan beharko dituztela. Litekeena dela kokagunea nire kontua ez izatea, eta are gutxiago beren merkaturatzea.

Onena horietako batzuei lekua ematea izango da: inurri neurotikoa, naturista, filosofoa eta abar, geroxeago, ondorio bat edo beste atera ahal izateko. Teorikoa baino, pertsonalagoa. Ziurtasunezkoa baino, saiatzeko hutsa.

* * *



Inurri bat ez zegoen batere gustura bere buruarekin, ezta batere baina. Eta kirurgia estetikoak egitea pentsatu zuen. Hanka bat kendu zioten. Burua handitu zioten. Antena parabolikoa jarri zioten. Eta urdin argiz pintatu zuten. Polit-polita geratu zen horrela. Hain polita geratu zen, non oso bitxi geratu baitzen. Oso bitxi.

Gainerako inurriek inurri estralurtarra zela uste zuten. Eta inurritegitik kanpora bota zuten. Bera ordea pozik zegoen. Oso orijinala iruditu zitzaion.

* * *

Inurri neurotikoak psikoanalistarengan jo zuen denbora luzez. Patuaz kexatu zen, bere izaeraren errua gurasoei leporatu eta lurreko jainko guztiei egotzi zien tximeleta izan ez izana. Psikoanalistak esan zionean neurosiaren irtenbide bakarra bizitza zen bezala onartzea zela, iruzur egin ziotela sentitu zuen barren-barrenean. Ez zitzaion arrazoirik falta. Psikoanalistak sorgin-orratz baten antzera hegan egiten saiatzen zen egunero, gauetz eta ezkutuan. Hori bai, errudun sentimendu izpirik gabe.

* * *

Intsektu guztiak familia handi bat gara!, aldarrikatu zuen inurri apaizak. Gure artean ez du egon behar sexu, tamaina, kolore, nazionalitate ezberdintasunik, jarraitu zuen.

Eta termitak ere bai?, moztu zion inurri petral batek.

Horiek ezta aipatu ere niri!

Izan ere, inurri apaiz hark termita bikotekide bat izana zuen Afrikan misiolari egon zen garaian. Eta noski, ezin zituen ikusi ere egin!

* * *

Inurri batek filosofia ikasi nahi zuen ez zekielako nor zen, nondik zetorren eta nora zihoan. Baina ez zuen unibertsitatean sartzeko froga gainditu eta bizitzen jarraitu zuen.

Halaxe, asmo eta pretentsio gehiagorik gabe.

* * *

Inurritxo batek, jaio bezain pronto, galdetu zuen ea zenbat denbora zuen bizitzeko.

Inork ez zuen jakin erantzuten.

Are gehiago, lagunak minduta sentitu ziren. Mukizua besteak lotsagarri uzten ari zen.

Bizi eta ixildu!, erantzun zioten.

* * *

Inurrien Historiak dioenez, dinosauroen suntsiketa aurreko VIII. mendean, hauek inurritegiak saiatu ziren inbaditzen, behin eta berriro saiatu

gainera. Eta gero, beren kodizeetan izkiriartzen zuten: *Et domuit formicae*, inurriak menperatu ditugu.

Baina, ez zen egia eta edozein inurrik irribarre egiten du gaur egun hori guztia gogoratzean.

Horren froga dugu, gaur egun, oraindik ere, salgai daudela.

* * *

Goiz batean, inurri bat lan egiteko gogorik gabe esnatu zen. Bon, ez zekien sentitzen zuen hura nagia zenik beraz bere buruari esan zion: hemendik pixka batera ekingo diot lanari. Handik ordubetera, lanean berehala jarriko zela agindu zion bere golkoari, eta eguerdi aldera ezer egin gabe jarraitzen zuenean, gainontzeko inurriak kezkatu egin ziren.

Baju zaude, gaixo, udaberriko astenia izango duzu agian... Egin al duzu analisirik azken bolada honetan?

Ondorioz, inurria lanean hasi zen berehala, beti bezala.

Badaezpada.

* * *

Inurri naturista batek gupidaz begiratzen zien besteei.

Ez dakizue zenbat toxina duzuen gainean! Nire bizitza, berriz, sana da oso, eta zaharra izatera helduko naiz, esaten zien besteei azenario bat kraskatzen zuen bitartean.

Egun batean, behi bat pasa zen handik eta, inozentzia osoz, bat-batean eta ustekabean, 737 inurri zanpatu zituen, naturista barne.

* * *

Inurri batek santu izan nahi zuen, eta ez zekien nola.

Eta jakin gabe hil zen.


* * *

Maitasuna ezagutzen dudan gauzarik erotikoa da, esan ohi zuen inurri hark sexuari buruzko teleaioetan. Baina maitasunak porrot egin zuenean, abinentziaren ziztada sentitu eta ez zen gehiago inongo pantailatan azaldu. Mihi gaizto batzuek esan zuten sex-shop batean ikusi zutela. Beste batzuek kontsolagailua zerabilela. Mihi gaiztoak, baina inurrienak, ez dezagun ahaztu.

* * *



Bukatu da, oraingoz, inurri aukeratu hauen desfilea, eta gehitu nahiko nukeen bakarra da testu hauek nik pentsatu baino askoz ere mugakoagoak atera zitzaizkidala. Oso harrera ona izan zuten irakurketa literario bezala zenbait ekintza ia-ia akademikotan, eta, era berean, horietako bat bederen, kirurgia estetikoak egin zuen inurriarena, lehen irakurleentzako argitalpen bat da gaur egun, estatuko lau hizkuntzetan. Nire liburuen artean, irakurlerik txikientzat argitaratua, hain zuzen. Beraiek al ziren nire irakurle implizituak? Ez! Omenaldi akademiko hartan bildu zirenak, agian? Ezta ere! Dinosaurioek, inurritegiak inbaditu ondoren, «Et domuit formicae» kodizeetan idazten zutela kontatzean, nire unibertsitateko ikasleren batek lotura egokia egingo zuela pentsatzen al nuen? Hau da, «Et domuit vascones» latinezko esaldiaren «baskoiak menperatu ditugu» itzulpenarekin lotuko zuela? Ez, noski! Inoiz, haien aurrean irakurri badut, beti zabaltzeko behar izan dut beren gaitasun literarioa: historiografia abertzaleak esaldi hori atxikitzen zien errege go-doei, beti esan izan baitziguten haiek ez zutela sekula euskalduna menperatu ahal izan. Ezabatu egin behar al nuen horregatik? Ez, argi dago. Irakurle implizituaren itzalak ezin dio idazleari dibertitzeko aukera ukatu. Beste modu batera esanda, nahi duena idazteko aukera.



Krokodiloa ohe azpian bezalako liburu bat, zeinak HGLko Sari nazionala jaso baitzuen eta, nire iritziz, gazte literaturaren ezaugarri estilistikoak baititu, gazteek bezainbeste edo gehiago estimatu izan dute helduek, Euskal Herrian behintzat. Irakurle implizitu heldu batentzat idatzi dudan liburu bakarrak, *Festa aldameneko gelan*, Juul Saria jaso zuen 2008an, Nafarroako bailara bateko DBH eta Batxilergoko ikasleek urte hartan gehien gustatu zitzaaien liburuari emandakoa, alegia.


Horrela, esperientzia propioei begiratzen badiet, Gazte Literaturaren mugak gorabeheratsuak direla esan dezaket, eta ondo iruditzen

zaidala halakoak izatea. Uste dut sintoma ona dela eta sustatu egin beharko litzatekeela. Beti iruditu izan zait eredugarria Siruela argitaletxeak 8 urtetik 88rainoko irakurleei sail bat egokitzea. Are gehiago, gaur egungo gazte-literaturaren irakurlea, Gemma Lluc-en hitzetan, «narratiben kontsumitzaile» denean. Kotsola, telebista, ordenagailu eta zinean zehar liburuetan bezala higitzen denean. Interneten bidez parekoekin harremanak izan eta erraztasun berarekin irakurle izatetik idazle edo errealizadore izatera pasatzen denean.

Gaur egun, gazteen eta euren kulturaren aurrean izan ohi den ustezko ezagutza ezak eta nahasmenduak ez naute gehiegi izutzen. Ziur asko, gurasoek gure aurrean sentitu ohi zutenaren tankerakoa baita. Ez dut uste haur- edo gazte-literatura idazteko ikastaro trinko bat egin behar denik, denok izan baikara haur eta gazte. Bai, ordea, haurtzaro eta gaztaroarekiko, gai eternal eta beti berriekiko, interes bizia izatea.

Gainontzekoa, literatura da. Hau da, giza komunikazioaren eta adierazpenaren nahia, fantasiatze beharra, erreala deritzogun horretatik haratago, istorioak entzun edo lantzekoa. Eta hori beste batzuentzat egitekoa, hurbiltzea, seduzitzea, hunkitzea nahi dugun harentzat edo mendekua hartu nahi diogunarentzat. Eta hori guztia, hitz zehatzen eta benetakoen bidez. Hitz horiek antolatzen gaituztelako, goratzen edo baretzen gaituztelako, gure baitan leihoak eta ateak zabalduz mundu ebokadore batera sarrera ematen digutelako, eta bizitza jasangarriagoa bihurtzen dutelako.

Roland Barthes-ek zioen bezala, literaturak ez du ezertarako balio, baina arnasa hobeto hartzen laguntzen digu.




Vuelo de papel

El tema «Fronteras de la Literatura Juvenil», que reunió a diversos escritores y especialistas en la Casona de Verines, el pasado mes de septiembre, hace reflexionar a la autora. Mariasun Landa, sobre las dificultades que subyacen en torno a este territorio literario. Señala que «el lector implícito» del autor no coincide, a menudo, con el lector real y que la competencia literaria de los lectores es una realidad determinante a la hora de entender la adecuación de un texto literario al receptor. La literatura juvenil ha sido, a veces, denominada «invento comercial», y, en cualquier caso, su catalogación y asignación a una franja de edad, son decisiones más cercanas al mundo editorial y a la comercialización de las obras que a las intenciones de los autores. Para ello, recurre a la lectura literaria de algunos de sus últimos micro-relatos y otros ejemplos, donde queda patente la limitación que impone el sistema literario a la creación literaria, que en palabras de Roland Barthes, no sirve para nada, pero que hace que respiremos mejor. A cualquier edad.

Flying in Paper

The subject «Frontiers of Literature for Young Adults», which brought together various writers and specialists at La Casona de Verines last September, has prompted the author Mariasun Landa to reflect on the difficulties lying beneath this literary territory. She points out that the author's «implicit reader» often fails to coincide with the real reader, and that the literary competence of the readers is a determining reality when it comes to understanding the adaptation of a literary text to the reader. Literature for young people has often been called «a marketing invention» and, in any case, the cataloguing and assigning of it to an age range are decisions closer to the world of publishers and the marketing of the works than to the intentions of the authors. So she resorts to the literary reading of some of the latest mini stories and other examples in which the limitations imposed by the literary system on literary creation are patently clear; in the words of Roland Barthes this is of no use whatsoever, but does, however, help us to breathe more easily. At any age.

Translated by Sarah J. Turtle



BEHINOLA aldizkariaren harpidetza orria.

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bete ondorengo fitxa.

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Posta-kodea:

BEHINOLA aldizkariaren urteko kuota (20 €). 2 zenbaki urtean.

Euskadiko Kutzaren honako kontu-korrontean sartu:

3035 0242 68 242 0 00247 I

eta bidali fitxa ordainketa-agiriarekin batera Galtzagorri elkartera.

Galtzagorri elkartea. Zemoia, 25, behe. 20013 Donostia. Tel.: 943 471 487